

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DEBAKO UDALA

Iragarkia

Mendi bideen ordenantza jendaurrean egon ondoren ez denez alegaziorik aurkeztu, behin betiko onartutzat eman da eta Araudiaren testu osoa argitaratzen da, Toki Araubideen Oinarriak Arautzeko Legearen 70.2 artikulua aplikatuz.

Deba, 2020ko uztailaren 13a.—Gilen García Boyra, alkatea. (3445)

MENDI BIDEEN ORDENANTZA

Xedea. Udal honek, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25. artikulua aurreikusitakoaren arabera, Toki Erakundeetako Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretua, eta Gipuzkoako Errepide eta bideen 1/2006 Arau Foralean aurreikusitakoaren arabera, eta horiekin bat datozen gainerako xedapenen arabera, udal titulartasuneko bideen erabilera partekatua, berezia eta ohikoa arautzen du, narriatu ez daitezkeen ibilgailu astunak bertatik igarotzearen eta, bereziki, basogintzako ustiapenak direla eta egurra eta peiak garraiatzetik eratorritako aprobetxamenduaren ondorioz.

Horrez gain, 2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa oinarri hartuta, pistak nekazaritzako eta basogintzako makinek erabiliko badute, Udalak alde aurreko bermea ezarriko du erabilera horiek baimendu baino lehen. Horren xedea izango da zorua bere onera ekarriko dela ziurtatzea makinek kalteak eragiten badituzte pistetatik igarotzean.

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

Ordenantza udalerrri osoan aplikatzen da, titulartasun publiko landa-bide zolatuetak, Udalaren jabari publikoko ondasunen inbentarioan bildutakoak erabiltzeko. Bide publiko nagusien eta bigarren mailako landa-bide publikoen inbentarioa egina dago eta behin betiko onartua.

2. artikulua. Eskumenak eta indarraldia.

1. Debako Udalarri dagokio bere udalerrian barne hartutako eta udal titulartasuneko landa-bide zolatuen funtzio teknikoa, zaintzakoa eta zigortzekoa betetzea.

2. Bide horien zaintza lana Udalak izendatutako langileek egingo dute (Udaltzaingoak, zerbitzuetako eta bulego teknikoko erdi mailako teknikariak eta basozainak) eta haien zeregin nagusia izango da bide-sarea ikuskatzea eta aipatutako bideak eta beren babes-gainazalak behar bezala erabiltzen direla ziurtatzea, bide horien erabilera eta Kontserbazioa bermatzea helburu hartuta.

3. artikulua. Lizentzia-eskaera.

Udalari eskatu beharko zaio dagokion lizentzia, udal titulartasuneko bideak erabili behar direnean, ondoko kasuetan.

AYUNTAMIENTO DE DEBA

Anuncio

No habiéndose presentado alegación alguna dentro del plazo de exposición pública del texto de la Ordenanza de caminos, se considera definitivamente aprobado el mismo y se hace público el texto íntegro del Reglamento en aplicación del artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Deba, a 13 de julio de 2020.—El alcalde, Gilen García Boyra. (3445)

ORDENANZA DE CAMINOS

Finalidad. Este Ayuntamiento, de conformidad con lo previsto en el artículo 25 de la Ley 7/85, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, el Real Decreto 1372/86, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, y la Norma Foral 1/2006, de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa, y demás disposiciones concordantes, regula el uso compartido, especial y habitual de las vías de titularidad municipal Como consecuencia del tránsito de vehículos pesados no degradables y, en particular, del aprovechamiento derivado del transporte de madera y peyas por explotaciones forestales.

Adicionalmente, en base al Decreto 2/2012, de 10 de enero, por el que se declara Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el tramo del Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco, si las pistas van a ser utilizadas por maquinaria agrícola y forestal, el Ayuntamiento establecerá una garantía previa a la autorización de dichos usos. Tendrá por objeto asegurar la recuperación del suelo en caso de que las máquinas causen daños a su paso por las pistas.

Artículo 1. Ámbito de aplicación.

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal, para la utilización de caminos rurales pavimentados de titularidad pública incluidos en el inventario de bienes de dominio público municipal. El inventario de caminos públicos principales y rurales públicos secundarios está elaborado y aprobado definitivamente.

Artículo 2. Competencias y vigencia.

1. Corresponde al Ayuntamiento de Deba el ejercicio de la función técnica, de vigilancia y sancionadora de los caminos rurales pavimentados de titularidad municipal incluidos en su término municipal.

2. La vigilancia de estas vías se llevará a cabo por el personal designado por el Ayuntamiento (Policías Locales, Técnicos intermedios de Servicios y Oficina Técnica y guardas forestales), cuya función principal será inspeccionar la red viaria y asegurar el correcto uso de dichas vías y sus superficies de protección, con el fin de garantizar su uso y conservación.

Artículo 3. Solicitud de licencia.

Deberá solicitarse al Ayuntamiento la correspondiente licencia cuando se trate de utilizar caminos de titularidad municipal, en los siguientes casos.

- Egurra ateratzea.
- Harrobiko materiala ateratzea.
- Lurra leku-aldatzea, partzelen betelanak eta egokitze-lanak egiteko.
- Hondakinen isurketa hondakindegietan.
- Obra zibilak.

Baimena lortzeko tasak ordaindu behar dira eta ordenantzan ezartzen den fidantza utzi behar da.

Egurra ateratzearen kasu zehatzean, udal lizentzia eskatzen duten kontratistek edo jabeek ondoko dokumentazioa aurkeztu behar dute:

- a) Eskatzailearen identifikazio-datuak.
- b) Eginbehar den egur-mozketarako baimena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendien Zerbitzuak luzatua. Bertan, ondokoak zehaztu behar dira:
 - Atera behar den egurraren bolumena.
 - Mendiaren edo bere jatorrizko lekuaren izena eta koka-pena, hala badagokio, katastro-erreferentzia zehaztuta.
- c) Garraioaren hasierako eta bukaerako datak.
- d) Materialen metaketa egin behar bada, lekua grafikoki adieraztea.
- e) Erabili nahi diren bide publikoen espezifikazioak, hala badagokio, Udalak emango dion kokapen-planotan ibilbidea zehaztuta.
- f) Erabiliko diren ibilgailuen matrikula eta beren dokumentazioa.

4. artikulua. Debekuak eta mugak.

Udal titulartasuneko bideetan, ondoren adierazten diren ibilgailuen erabilera debekatzea ezartzen da:

- Katedun beldar-ibilgailuak.
 - Zoru gaineko arraste-ibilgailuak.
 - 12 tona baino gehiago pisatzen duten ibilgailuak (gehieneko pisu gordina ardatzeko).
- Dena den, espezifikoki eta puntualki, behar-beharrezkoa denean aurretik aipatutako ibilgailuren batera biltzea, baimen bat eman ahal izango da horretarako propio, eta beharrezko neurriak hartuko dira bide-zorua ez hausteko.

– Debekatuta dago bide horietatik 30km/ordu baino abiadura handiagoan ibiltzea.

– Erabat debekatuta dago dagokion baimenik gabe landa bideen bazterretan hondakinak bota eta uztea.

– Herri bideen inbasioa eta baita bideen ohiko erabilera oztopatu, kaltetu edo bidearen izaera eraldatu edo kaltetzen duten jarduera erasokorrak burutzea debekatuta dago.

Eurialdian, bideak bereziki hondatzeko aukera izanik, Udalak ezarriko ditu garai hauetan bete beharreko baldintzak egurra atera ahal izateko.

5. artikulua. Ebazpen-epea.

Lizentzia emateko prozedura ebazteko gehieneko epea hila bete batekoa izango da, berau eskatzen den egunetik kontatuta, aurreko artikuluan bildutako baldintzekin. Ebazpenean bidearen erabilera-baldintzak adierazi behar dira, baita ordaindu beharreko kopurua ere, tasetan eta utzi beharreko fidantzan.

Ebazpenaren aurretik, udal zerbitzu teknikoek ikuskaritza bisita bat egingo dute, eta udalarenak diren bideen egoerari buruzko txostena egingo dute, erabiliak izan aurretik. Aipatutako txostenek oinarritzat har ditzakete material hauek: argazki edo bideo dokumentazioa, dokumentazio planimetricoa, ikus-entzuzkoa eta abar.

- Extracción de madera.
- Extracción de material de cantera.
- Traslado de terreno para relleno y acondicionamiento de parcelas.
- Vertido de residuos en vertederos.
- Obras civiles.

Para obtener la autorización hay que abonar las tasas y depositar la fianza que se establece en la ordenanza.

En el caso concreto de extracción de madera, los contratistas o propietarios que soliciten licencia municipal deberán presentar la siguiente documentación:

- a) Datos identificativos del solicitante.
- b) Permiso de corta de madera expedido por el Servicio de Montes de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En ella se especificarán:
 - Volumen de madera a extraer.
 - Nombre y localización del monte o de su lugar de origen, especificando, en su caso, la referencia catastral.
- c) Fechas de inicio y final del transporte.
- d) Señalar gráficamente el lugar, en caso de necesidad de acopio de materiales.
- e) Las especificaciones de los caminos públicos que se pretendan utilizar, especificando, en su caso, el itinerario en el plano de ubicación que le facilitará el Ayuntamiento.
- f) Matrícula de los vehículos a utilizar y su documentación.

Artículo 4. Prohibiciones y limitaciones.

En las vías de titularidad municipal se establece la prohibición del uso de los siguientes vehículos:

- Vehículos de oruga con cadena.
- Vehículos de arrastre sobre el suelo.
- Vehículos de peso superior a 12 toneladas (peso bruto máximo por eje).

No obstante, de forma específica y puntual, cuando sea estrictamente necesario el acoplamiento a alguno de los vehículos anteriormente citados, podrá concederse una autorización al efecto, adoptándose las medidas necesarias para evitar la rotura del firme.

– Queda prohibido circular a una velocidad superior a 30 km/hora por estas vías.

– Queda terminantemente prohibido el vertido y depósito de residuos en las márgenes de las vías rurales sin la correspondiente autorización.

– Queda prohibida la invasión de vías públicas, así como la realización de actividades agresivas que obstaculicen, dañen o alteren la naturaleza de la vía.

En periodos de lluvia, con la posibilidad de un deterioro especial de las vías, el Ayuntamiento establecerá las condiciones a cumplir en estos tiempos para poder extraer leña.

Artículo 5. Plazo de resolución.

El plazo máximo para resolver el procedimiento de concesión de la licencia será de un mes, desde la fecha de solicitud de la misma, en los términos recogidos en el artículo anterior. La resolución expresará las condiciones de uso de la vía, así como la cantidad a abonar, en las tasas y en la fianza a depositar.

Antes de la resolución, los servicios técnicos municipales realizarán una visita de inspección y elaborarán un informe sobre el estado de las vías que pertenecen al ayuntamiento antes de ser utilizadas. Los citados informes pueden basarse en los siguientes materiales: documentación fotográfica o de vídeo, documentación planimétrica, audiovisual, etc.

6. artikulua. Luzapena.

Aprobetxamendua adierazitako datan amaitzen ez bada, dagokion luzapena eskatu beharko da. Eskatutako luzapena dagokion tasak ordaintzetik salbuetsita geratuko da.

7. artikulua. Dokumentazioa.

Garraiolaria behartuta egongo da, garraioari ekiten dion edozein unetan, baimena lortu duen udal-akordioaren jakinarazpen kopia edo originala, kanona ordaindu duela egiaztatzen duten ordainketa agiriak eta fidantza jarri duenaren egiaztagiria edukitzera.

Udalak baimena ematerakoan egin beharreko jarduera kontutan hartuta, materiala garraiatu ahal izateko ibilbide edo alternatiba egokiena erabaki ahal izango du eta eskatzailea erabaki hori betetzera derrigortu.

8. artikulua. Fidantza.

Baimena eskatzen duenak, aipatutako bideak erabili baino lehen, fidantza bat jarri beharko du, bideak erabiltzeak sortu ditzakeen arazoei aurre egiteko erabiliko dena.

Aipatutako fidantza dirutan edo banketxeko bermearekin egin daiteke, gertatu daitezkeen kalteei erantzuteko.

Era berean, Udalarekin adostuta, fidantza aseguru polizaren bidez ere egin ahal izango da.

Fidantzaren zenbatekoa hurrengo eskala honen arabera zehaztuko da:

– Egur garraioak:

100m³-rainoko egur kopurua: 600 € fidantza kilometro bakoitzeko.

500m³-rainoko egur kopurua: 1.500 € fidantza kilometro bakoitzeko.

500m³-tik gorako egur kopurua: 3.000 € fidantza kilometro bakoitzeko.

Gutxieneko fidantza, edozein kasutan 600 €koa izango da.

– Obra material edo antzeko garraioak, obraren aurrekontuaren arabera izango dira eskala honen arabera:

0-15.000 € bitarteko obrak: 3.000 € fidantza kilometro bakoitzeko.

15.000-30.000 € bitarteko obrak: 4.000 € fidantza kilometro bakoitzeko.

30.000-60.000 € bitarteko obrak: 6.000 € fidantza kilometro bakoitzeko.

60.000 € gorako obrak: 12.000 € fidantza kilometro bakoitzeko.

Kopuru hauek urtero, KPlaren arabera eguneratuko dira. Alkatetza dekretu bidez publiko egingo dira prezio berriak.

Mendi baterako ordaindutako fidantza ezin izango da beste baterako erabili, nahiz eta egurra aldi berean atera mendi bietan.

9. artikulua. Bideen garbiketa.

Ustiapenaren onuradunek bermatu egin beharko dute, kasu guztietan, bidearen erabilera komuna eta publikoa. Horretarako beharrezkoak diren konponketak eta garbiketak egin beharko dituzte ustiapenak irauten duen bitartean. Horrela ez balitz, Udalak egin ahal izango ditu lan horiek haren kontura, gordailutako fidantzaz baliatuz.

Dena dela, onuradunek ahal duten guztia egin beharko dute aipatutako bideetan zirkulazio arazorik ez eragiteko, hala nola, bideak ezingo dira zuhaitzen enborrekin ez adarrekin okupatuta utzi. Gainera, behartuta egongo dira bide publikoetan ibilgailuek uzten dituzten produktuak, lurrak, harriak, eta abar kentzera.

Artículo 6. Prórroga.

En caso de no finalizar el aprovechamiento en la fecha indicada, deberá solicitarse la correspondiente prórroga. La prórroga solicitada quedará exenta del pago de las tasas correspondientes.

Artículo 7. Documentación.

El transportista estará obligado, en cualquier momento del inicio del transporte, a disponer de la copia de la notificación o original del acuerdo municipal de autorización, de los justificantes de pago del canon y del depósito de la fianza.

El Ayuntamiento, teniendo en cuenta la actividad a realizar en el momento de otorgar la autorización, podrá decidir el itinerario o alternativa más adecuada para el transporte del material y obligar al solicitante a cumplir dicha decisión.

Artículo 8. Fianza.

El solicitante de la autorización deberá depositar, con carácter previo a la utilización de dichas vías, una fianza destinada a hacer frente a los problemas que la utilización de las mismas pueda ocasionar.

Dicha fianza podrá hacerse en metálico o con garantía bancaria para atender los posibles daños.

Asimismo, acordándolo con el Ayuntamiento, la fianza podrá hacerse también a través de la póliza de seguro.

El importe de la fianza se determinará de acuerdo con la siguiente escala:

– Transporte de madera:

Madera hasta 100 m³: 600 € de fianza por kilómetro.

Madera hasta 500 m³: 1.500 € de fianza por kilómetro.

Madera en cantidad superior a 500 m³: fianza 3.000 €/kilómetro.

La fianza mínima, en todo caso, será de 600 €.

– Los materiales de obra o transportes similares se ajustarán al presupuesto de la obra de acuerdo con la siguiente escala:

Obras de 0 a 15.000 €: fianza de 3.000 €/kilómetro.

Obras de 15.000 a 30.000 €: fianza de 4.000 €/kilómetro.

Obras de 30.000 a 60.000 €: fianza de 6.000 €/kilómetro.

Obras mayores de 60.000 €: fianza de 12.000 €/kilómetro.

Estas cantidades se actualizarán anualmente en función del IPC. Los nuevos precios se publicarán mediante decreto de alcaldía.

La fianza pagada para un monte no podrá utilizarse para otro, aunque la madera sea extraída simultáneamente en ambos montes.

Artículo 9. Limpieza de caminos.

Los beneficiarios de la explotación deberán garantizar, en todo caso, el uso común y público de la vía. Para ello deberán realizar las reparaciones y limpiezas necesarias durante la explotación. Si no fuera así, el Ayuntamiento podrá realizar estos trabajos a su costa, valiéndose de la fianza depositada.

En todo caso, los beneficiarios deberán hacer todo lo posible para evitar problemas de circulación en las citadas vías, tales como la imposibilidad de dejarlas ocupadas con troncos de árboles o ramas. Además, estarán obligados a retirar en las vías públicas los productos, terrenos, piedras, etc. que dejen los vehículos.

10. artikulua. Tasak.

Egur ateratze kasuetarako bakarrik aplikatuko da. Ez dira tasak kobratuko bitarteko mozketetatik (lehenengo, bigarren eta hirugarren banaketak) lortutako egurra garraiatzeagatik. Egurra ateratzeko arrazoia zuhaitzak gaixo daudelako bada, eta GFAK horrela aginduta, tasak ordaintzetik salbuetsita geratuko dira.

Tasen zenbatekoa hau izango da: 0,40 €/m³ egur bakoitzean. Urteko Ordenantza fiskalen bidez eguneratuko da.

Tasak ordaindu ez izanak automatikoki ekarriko du berekin lizentzia baliogabetzea.

11. artikulua. Fidantzaren itzulketaren eskaera.

Aprobetxamendua amaitutakoan, fidantza utzi duena behartuta dago fidantza itzultzeko dagokion eskaera aurkeztera, eta ziurtatu egin behar du lanak amaituta daudela. 30 eguneko epean, Udalak txosten tekniko bat igorriko du aprobetxamenduaren ondoren bideak nola geratu diren adierazteko. Txosten teknikoa ikusita, eta konponketa-lanik egin beharko ez balitz, 30 eguneko epean itzuliko da fidantza.

12. artikulua. Konponketa-lanak.

Txosten teknikoa ikusita, eta konponketa-lanak egin behar izanez gero, lizentziaren titular den pertsonari jakinaraziko zaio, eta egin behar dituen lan horiek egiteko emango zaion epea adieraziko zaio. Epea amaituta eskatutako konponketa-lanak egin ez badira, Udalak exekuzio subsidiarioari ekingo dio titularraren kontura, gordailututako fidantzaren zenbatekotik dagokion kenketa eginda. Zenbateko hori nahikoa ez balitz diferentzia eskatuko zaio, kalteen ordainaren gutzizkoa osatu artean. Egindako kalteak konpondu ezingo balira, Udalarari indemnitazio bat eman beharko zaio, suntsitutako ondasunen balioaren berdina den zenbatekoarekin edo eragindako kaltearen kopuruarekin. Bat baino gehiago badira aldi berean udalaren bide berak erabiltzen dituztenak, eta kalteak gertatuz gero, erantzukizunen banaketa proportzionala egingo da erabiltzaile desberdinen artean, ibilitako metro linealen eta garraiatutako tonen arabera. Baldin eta haiek batak batek eragindakoak izan direla ziurtatzen ez bada.

13. artikulua. Kalteen ordaina premiako kasuan.

Segurtasunagatik, edo dagokion udal organoak ebatzita behar bezala frogatutako beste edozein arrazoirengatik, kalte galeren ordaina geroraezina denean, kalte-galera horiek berehala ordaintzeko ekin ahal izango zaio, baita gero ere kalte-galeraren eragileari dagokion ordainketa exijitzeari, aurreko artikuluetan adierazitako zigor-espeditentari aurrez hasiera eman ondoren, edo jurisdikzio arruntera joz.

14. artikulua. Bitartekaritza, kontziliazioa eta arbitrajea.

Udalaren eta fidantza jarri duenaren artean desadostasunik sortuz gero, kalteen edo kalte-ordainaren balorazioari buruz, aldeak, aurrez propio adostuta, bitartekaritza, kontziliazio eta arbitraje-prozeduren pean geratu ahal izango dira. Dena den, prozedura horiek ondorengo akordioa, ituna, hitzarmena edo kontratua eskatuko dute aldean artean. Kasu horretan, prozedura horien ondorioz sortutako gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

15. artikulua. Harrobiak, meatzaritzako jarduerak, lur-mugitzea eta beste batzuk.

Bide horiek erabiltzeko, harrobietatik, meatzeetatik, lur-mugitzetik materialak ateratzeko lanetarako eta ibilgailu motordun astunak edo antzekoak erabiliz materialak leku-aldatzea berekin dakarren beste edozein lanerako, ibilbide osoan egin beharko dute mantentze-lana jardueraren titular diren enpresek. Gainera, dagokion tramitazioa egingo da dagokion udal baimena lortzeko. Aldian-aldian, udal zerbitzu teknikoek ikuskatuko dituzte bide horiek, eta behatzen dituzten kalteak aipatutako enpresek konpondu beharko dituzte.

Artículo 10. Tasas.

Sólo se aplicará en los casos de extracción de madera. No se cobrarán tasas por el transporte de madera procedente de cortas intermedias (primeras, segundas y terceras distribuciones). Si el motivo de la extracción es por enfermedad de árboles, y por prescripción de la DFG, quedarán exentas del pago de las tasas.

El importe de las tasas será de 0,40 €/ m³ por madera. Se actualizará mediante Ordenanzas Fiscales anuales.

El impago de las tasas implicará automáticamente la anulación de la licencia.

Artículo 11. Solicitud de devolución de fianza.

Finalizado el aprovechamiento, el depositario está obligado a presentar la correspondiente solicitud de devolución de la fianza y asegurarse de que los trabajos están finalizados. En el plazo de 30 días, el Ayuntamiento emitirá un informe técnico en el que se indique cómo han quedado los caminos tras el aprovechamiento. A la vista del informe técnico, y en el caso de que no fuera necesaria la reparación, se procederá a la devolución de la fianza en el plazo de 30 días.

Artículo 12. Reparaciones.

A la vista del informe técnico, y en el caso de que sea necesario realizar trabajos de reparación, se comunicará a la persona titular de la licencia, con indicación del plazo que se le concederá para la realización de los trabajos a realizar. Transcurrido el plazo sin que se hayan realizado las reparaciones solicitadas, el Ayuntamiento procederá a la ejecución subsidiaria a costa del titular con la deducción correspondiente del importe de la fianza depositada. Si los daños causados no pudieran ser reparados, se deberá indemnizar al Ayuntamiento con una cantidad igual al valor de los bienes destruidos o a la cantidad del daño causado. En el caso de que sean varios los que utilicen simultáneamente las mismas vías propiedad del Ayuntamiento, se realizará un reparto proporcional de responsabilidades entre los diferentes usuarios en función de los metros lineales recorridos y las toneladas transportadas. Siempre que no se certifique que hayan sido provocados por alguno de ellos.

Artículo 13. Indemnización de daños en caso de urgencia.

Cuando por razones de seguridad o por cualquier otra causa debidamente acreditada, resuelta por el órgano municipal correspondiente, la indemnización de los daños y perjuicios sea inaplazable, podrá procederse a la inmediata sustitución de los mismos, así como a la exigencia del pago correspondiente al causante del daño, previa incoación del expediente sancionador a que se refieren los artículos anteriores o acudiendo a la jurisdicción ordinaria.

Artículo 14. Mediación, conciliación y arbitraje.

En caso de desacuerdo entre el Ayuntamiento y el prestador de la fianza, las partes, previo acuerdo, podrán someterse a los procedimientos de mediación, conciliación y arbitraje en materia de valoración de daños o indemnización. No obstante, estos procedimientos exigirán un acuerdo, pacto, convenio o contrato posterior entre las partes. En este caso, los gastos derivados de estos procedimientos correrán a cargo del usuario.

Artículo 15. Canteras, actividades mineras, movimiento de tierras y otras.

Para la utilización de estos caminos, para las labores de extracción de materiales de canteras, minas, movimiento de tierras y cualquier otra que implique el traslado de materiales con vehículos de motor pesados o similares, las empresas titulares de estas actividades deberán realizar el mantenimiento en todo su recorrido. Además, se realizará la correspondiente tramitación para obtener la correspondiente autorización municipal. Dichas vías serán periódicamente inspeccionadas por los servicios técnicos municipales y los daños que observen deberán ser reparados por las citadas empresas.

16. artikulua. Ingurumen-baldintzak.

Lizentziaren onuradunak ingurumenari lotutako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Ez da hondakinik utziko bide-bazterrean (plastikozko poltsak, arraste-kableak, gasolina-latak eta antzekoak).
- b) Bidea erabiltzen duten ibilgailuek ez dituzte kutsaizaleak isuriko (gasolioa, olioia, lubrifikatzaileak eta abar).
- c) Bidean zehar dauden ur-mozketak errespetatuko dira, bidean zehar higadura-ekintza luze bat saihestearren.

d) Hondatutako bide-zorua konpontzerakoan ez da aldaraziko inguruan den lurzoru erabili gabea, eta materia bizi-gabea gehituko da sendotze-lanen bat egin behar izanez gero.

e) Errekaren bat gurutzatu behar izanez gero, arlo horretan eskumena duen agintaritzari eskatu beharko zaio baimena.

17. artikulua. Obra edo instalazio baimendu gabeak.

Udal titulartasuneko bideetan, Udalak obrak geraraztea erabakiko du lizentzian ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, baita baimendu gabeko itxiturak edo antzekoak kentzea ere, bidearen erabilera publikoa eragozten badute.

18. artikulua. Arau-haustea.

Araudi honetan ohartarazitakoa hausten duten ekintzek edo omisioek erantzunkizun administratiboa sorraraziko dute, bide penalean, zibilean edo bestelako batean exijitu daitekeenaren kalterik gabe. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, ezartzen dituen arauen, printzipioen eta prozeduraren arabera eskatu ahal izango da erantzukizun administratiboa.

19. artikulua. Arau-hauste motak.

1. Erantzukizun administratiboaren pean eroriko dira artikuluko honetako ondoko ataletan tipifikatzen diren arau-haustee-tatik edozein egiten dutenak.

2. Ibilgailu motordun astunek udal landa-bideetatik zirkulatzeari dagokionez:

A. Arau-hauste arinak dira:

a) Ibilgailu motordun astunek bideetatik zirkulatzea dago-kion baimenik gabe, edo emandako baimenetan ezarritako preskripzioetakoren bat ez betetzea, ondoren legeztatu daitez-keenean.

b) Bidea inbaditzea materiala kargatzean edo deskarga-tzean, bertatik igarotzea eragotziz eta dagokion baimen espezi-fikorik gabe.

c) Bidea edo pista bertatik igarotzea eragozten duten baldin-tzetan edukitzea.

d) Ingurumenari lotutako baldintzetatik edozein ez bete-tzea, eraginpekoeko sistema, flora, fauna edo paisaiarentzat ondoriorik ekarriko ez badu.

e) Baimendutakoa (30 km/ordu) baino abiadura handia-goan zirkulatzea.

f) Obrak, instalazioak edo itxiturak egitea eskatutako bai-menik edo lizentziarik gabe, ondoren legeztatu daitezkeenean.

B. Arau-hauste larriak dira:

a) Ibilgailu motordun astunek bideetatik eta landa-pisteta-tik zirkulatzea dagokion baimenik eraman gabe, edo emandako baimenetan ezarritako preskripzioetakoren bat ez betetzea, on-doren legeztatuko ez direnean.

b) Bidea edo pista ibilgailuak edo pertsonak bertatik igaro-tzean arriskutsuak izango diren baldintzetan mantentzea.

Artículo 16. Condiciones ambientales.

El beneficiario de la licencia deberá cumplir las siguientes condiciones ambientales:

a) No se depositarán residuos en el borde de la vía (bolsas de plástico, cables de arrastre, latas de gasolina y similares).

b) Los vehículos que utilicen la vía no deberán verter con-taminantes (gasóleo, aceite, lubricantes, etc.).

c) Se respetarán los cortes de agua existentes a lo largo de la vía para evitar una acción erosiva prolongada a lo largo de la misma.

d) La reparación del firme deteriorado no alterará el suelo no utilizado existente en la zona, incrementando la materia inerte en caso de necesitar algún tipo de refuerzo.

e) En caso de tener que cruzar algún arroyo, deberá solici-tarse autorización a la autoridad competente en la materia.

Artículo 17. Obras o instalaciones no autorizadas.

En las vías de titularidad municipal, el Ayuntamiento acor-dará la paralización de las obras si no cumplen las condiciones establecidas en la licencia, así como la retirada de cierres o si-milares no autorizados que impidan el uso público de la vía.

Artículo 18. Infracciones.

Las acciones u omisiones que infrinjan lo previsto en el pre-sente Reglamento darán lugar a responsabilidad administrativa, sin perjuicio de lo exigible en vía penal, civil u otra. La responsa-bilidad administrativa será exigible conforme a las normas, prin-cipios y procedimiento establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 19. Tipos de infracciones.

1. Incurrirán en responsabilidad administrativa quienes co-metan cualquiera de las infracciones tipificadas en los aparta-dos siguientes de este artículo.

2. En relación con la circulación de vehículos a motor pesa-dos por vías rurales municipales:

A. Son infracciones leves:

a) La circulación de vehículos a motor pesados por las vías sin la correspondiente autorización o el incumplimiento de al-guna de las prescripciones establecidas en las autorizaciones otorgadas, cuando puedan ser objeto de posterior legalización.

b) La invasión de la vía durante la carga o descarga del material, impidiendo su paso y sin la autorización específica co-rrespondiente.

c) Mantener la vía o pista en condiciones que impidan el paso por ella.

d) El incumplimiento de cualquiera de las condiciones am-bientales, siempre que no suponga consecuencias para el sis-tema, la flora, la fauna o el paisaje afectados.

e) Circular a una velocidad superior a la permitida (30 km/h).

f) La realización de obras, instalaciones o cierres sin la au-torización o licencia exigidas, cuando puedan ser legalizados con posterioridad.

B. Son infracciones graves:

a) La circulación de vehículos a motor pesados por vías y pistas rurales sin llevar la correspondiente autorización, o el in-cumplimiento de alguna de las prescripciones establecidas en las autorizaciones otorgadas, cuando no vayan a ser legalizadas con posterioridad.

b) Mantener la vía o pista en condiciones de peligrosidad para el paso de vehículos o personas.

c) Ingurumenari lotutako baldintzetatik edozein ez bete-
tzea, eraginpekoeko sistema, flora, fauna edo paisaiarentzat on-
dorio arinen bat ekarriko badu.

d) Baimendutakoa baino pisu handiagoarekin igarotzea.

e) Obrak, instalazioak edo itxiturak egitea eskatutako bai-
menik edo lizentziarik gabe, ondoren legeztatuko ez direnean.

f) Bidearen edozein elementu funtzional hondatzea, zirku-
lazioaren antolamenduarekin, noranzkoarekin eta segurtasuna-
rekin zuzenean lotua, edo bere ezaugarriak edo egoera nahita
aldaraztea.

g) Bideko edo bertako elementu estrukturaletako edozein
obra edo instalazio suntsitzea, hondatzea, okerrera eramatea
edo aldaraztea.

C. Arau-hauste oso larriak dira.

a) Ingurumenari lotutako baldintzetatik edozein ez bete-
tzea, eraginpeko ekosistema, flora, fauna edo paisaiarentzat on-
dorio larriren bat ekarriko badu.

b) Ausarkeriaz gidatzea.

20. artikulua. Zehapen-prozedura.

a) Udal organo eskumendunei dagokie zehapen-prozedurak
hasi, agindu eta ebaztea.

b) Udaltzaingoak egiaztatutako egitateek, denuntzia-agi-
rietan edo beste dokumentu publikoren batean formalizatuek,
dagozkien lege-baldintzak behatuta, balio frogagarria izango du-
te, dagozkien eskubideak edo interesak defendatzeko adminis-
trazailuek adierazi edo ekar ditzaketan frogan kalterik gabe.

c) Arau-haustek delitu edo falta izango balira, Administra-
zioak jurisdikzio-organu eskumendunari eskuordetuko dio erru-
duntasun-testigantza, eta zigor-prozedurari jarraitzeari utziko dio
aginte judizialaren epairik jaso ez denean oraindik. Agintaritzak
judizialaren zehapenak kanpo utziko du isun administratiboaren
ezarpena.

d) Delitua edo falta egon dela balioetsi ez bada, adminis-
trazioak zehapen-espeditentea jarraitu ahal izango du, hala ba-
dagokio, jurisdikzio eskumendunak frogatutzat hartu dituen egi-
tateetan oinarrituta.

21. artikulua. Isunak.

Aurreko artikuluetan aipatutako arau-haustek sorrarazi-
tako kalte-galeren arabera zehatuko dira, hala badagokio, sortu-
tako arriskuaren eta eragilearen intenzionalitatearen arabera,
eta isun hauek ezarriko dira.

– Arinak: 60 eta 599 euro bitarteko isuna.

– Larriak: 600 eta 2.399 euro bitarteko isuna.

– Oso larriak: 2.400 eta 45.000 euro bitarteko isuna.

Egitate bera lege espezifikoko batean baino gehiagotan aurre-
ikusita egongo balitz, zenbateko handiena ezartzen duen zeha-
tze-xedapena aplikatuko da.

Zehapenen ezarpena bateragarria izango da arau-hausleari
exijitzearekin berak aldarazitako egoera bere onera ekar dezan,
baita eragindako kalte-galeren indemnitzazioarekin ere.

1. ERANSKINA

Zaintza-lanak honela beteko dira:

– Lanak hasi aurreko bisita datuak biltzeko (argazki, bideo,
bidea markatzea pinturaz...) eta txostena: Ingurumen teknikaria.

– Lanak dirautenean ikuskapen bisita: udaltzainak.

– Amaierako txostena bidearen berri ematen eta konponke-
tak adierazten ala badagokio: aparejadoreak.

c) El incumplimiento de cualquiera de las condiciones am-
bientales que puedan tener consecuencias leves para el sis-
tema, la flora, la fauna o el paisaje afectados.

d) El paso con un peso superior al permitido.

e) La realización de obras, instalaciones o cierres sin la
autorización o licencia exigidas, cuando no vayan a ser legaliza-
dos con posterioridad.

f) El deterioro de cualquier elemento funcional de la vía, di-
rectamente relacionado con la ordenación, sentido y seguridad
de la circulación, o la alteración intencionada de sus caracterís-
ticas o estado.

g) La destrucción, deterioro, empeoramiento o alteración
de cualquier obra o instalación de la vía o de sus elementos es-
tructurales.

C. Son infracciones muy graves:

a) El incumplimiento de cualquiera de las condiciones am-
bientales que impliquen una afección grave para el sistema, la
flora, la fauna o el paisaje afectados.

b) Conducción temeraria.

Artículo 20. Procedimiento sancionador.

a) Corresponde a los órganos municipales competentes la
iniciación, ordenación y resolución de los procedimientos san-
cionadores.

b) Los hechos constatados por la Policía Local, formaliza-
dos en documentos de denuncia u otro documento público, ob-
servando los requisitos legales correspondientes, tendrán valor
probatorio, sin perjuicio de las pruebas que, en defensa de sus
derechos o intereses, puedan manifestar o aportar los adminis-
tradores.

c) Si las infracciones fueran constitutivas de delito o falta,
la Administración delegará el tanto de culpa en el órgano juris-
diccional competente y dejará de seguir el procedimiento penal
cuando aún no haya recaído sentencia de la autoridad judicial.
La sanción de la autoridad judicial excluirá la imposición de
multa administrativa.

d) Cuando no se haya apreciado la existencia del delito o
falta, la Administración podrá seguir el expediente sancionador,
en su caso, en base a los hechos que la jurisdicción competente
haya considerado probados.

Artículo 21. Sanciones.

Las infracciones a que se refieren los artículos anteriores se
sancionarán, en su caso, por los daños y perjuicios causados,
en función del riesgo causado y de la intencionalidad del cau-
sante, y se impondrán las siguientes multas.

– Leves: Multa de 60 a 599 €.

– Graves: Multa de 600 a 2.399 €.

– Muy graves: Multa de 2.400 a 45.000 €.

Si el mismo hecho estuviera previsto en más de una Ley es-
pecífica, se aplicará la disposición sancionadora de mayor
cuantía.

La imposición de sanciones será compatible con la exigen-
cia al infractor de la restitución de la situación alterada, así
como con la indemnización de los daños y perjuicios causados.

ANEXO 1

Las labores de vigilancia se realizarán de la siguiente manera:

– Visita previa al inicio de los trabajos para recoger datos
(fotos, vídeos, marcar el camino con pintura...) e informe: téc-
nico de medio ambiente.

– Visita de inspección durante las obras: policías locales.

– Informe final indicando la vía y las reparaciones en su
caso: aparejador.